



37. Ez dago Ez ardi, Ez
txakur, Ez haurrik, ahots
propioa Ez duenik!

0. AZALA

Azalarekin zer egin genezake? Guk proposamen gisara, irakurtzen hasi aurretik, marrazten hasia gomendatzen dizuegu. Orduan, aldizkaria erakutsi aurretik, fotokopiatu bi aldiz azala, eta hartu denboratxo bat azala margotzeko.

Margotzen diharduzuenean, galdetu haurrari:

-Zer esaten digute gure lagunek azalean? Irakurriko dugu?

Irakurri ostean, galdetu:

-Zer esan nahiko du esaldi honek?

Ondoren, bion artean, sortu esaldiaren egitura bereko beste esaldi pare bat: adibidez:

“Ez dago ez oilo, ez elefante, ez umerik, izaera propioa ez duenik!”

...

Ea zer sortzen duzuen! Imajinazioa, iturri amaigabea da... Erabili!

Behin ariketa eginda, eskaini aldizkaria haurrari, eta beste ezertan hasi aurretik, utziozu denboratxo bat aldizkariari begiratzen, hura aztertzen, hartaz gozatzen... Oso garrantzitsua da aldizkariarekin gustura sentitzea... Aldizkaria gustuko (maite) duela sentitzea... Irakurketara bideratzeko, ezinbesteko baldintza dela uste dugu... Beraz, beharrezkoa izango da noizean behin horrelako bakarkako momentu politak izatea.



37. Ez dago Ez ardi, Ez
txakur, Ez haurrik, ahots
propioa Ez duenik!

1. AURKIBIDEA

Aurkibidea bion artean irakur dezakezue! Hizki lodiz dagoena batek irakur dezake, eta bestea besteak. Bion artean irakurri!

Amaitzean, komentatu haurrari testu polit bat irakurriko diozula —eskuinaldean izenburua morez duena— eta adi entzuteko, interesgarria baita oso!

Irakurri ondoren, egin honako galdera hauek:

- Zer uste duzu, ezberdinak ala berdinak garela?
- Zuri zer gustatuko litzaizuke?
- Zuk eta nik antza dugu? Zertan ezberdintzen gara? Eta zu eta zure gelakoak?
- Ezberdinak izatea, zerbait positiboa dela uste duzu? Zergatik?

Ariketa eta galdera hauekin, garrantzitsua ikusten dugu haurra konturaztea ezberdintasunak eta aniztasunak duen aberastasunaz.

2. PUPU ETA LORE

Pupu eta Loreren atala honela lantzea proposatzen dizuegu:

Lehenik eta behin, utzi haurrari lasai komikia irakurtzen. Esan, irakurtzen doan heinean, zalantzaren bat suertatzen bazaio, lasai asko galdetzeko. Utziozu denboratxo bat lasai irakurtzen.

Behin irakurri duelarik, animatu haurra honako hausnarketa ariketa hau egitera:

- Nolakoa zara zu? Zer duzu gogoko? Hartu denboratxo bat pentsatzeko, eta idatzi orri baten zure izaeraren ezaugarri pare bat. Ondoren, bion artean, poema edo esaldi polit bat sortuko dugul! Aurrera!

Beraz, behin, bere izaerari buruz idatzi duelarik, bion artean, Pupuk eta Lorek egin duten bezala, errima izango duen esaldi polit bat sortuko duzue!

Nahi baduzu, berak berea egiten diharduen heinean, zuk ere, zurea sor dezakezu, eta ondoren, berarekin konpartitu.

Ondo pasa!



37. Ez dago Ez ardi, Ez
txakur, Ez haurrik, ahots
propioa Ez duenik!

3. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Pirritx eta Porrotxen istorioa irakurtzera murgildu aurretik, bota galderak:

- Zeri buruzko istorioa izango dugu oraingoan?
- Non daude gure lagunak?

Ondoren, eta berak esandakoaren haritik, animatu haurra, istorio labur bat kontatzera.

Istoria kontatu ondoren, irakurri bion artean ipuintxoak.

Behin ipuina irakurrita, egin galdera hauek haurrari:

- Zer gertatu da?
- Zergatik egin diote barre Porrotxi?
- Zer du gogokoago, atrakzioetan ibiltzea ala margotzea?
- Denok ditugu gauza berak gogoko?
- Eta hori aberasgarria da, ezta? Zergatik?
- Zuk gogoko dituzu jolas parkeko atrakzioak? Edo beste zerbait duzu gogokoago?

4. OSASUNA GURE ONDASUNA

Tiritatxoren aholkuekin, zera proposatzen dizuegu:

Lehenik eta behin, aztertu marrazkia bion artean, eta komentatu ikusten dituzuen ekintzak...

Ondoren, irakurri bion artean Tiritatxoren aholkuak, eta behin irakurrita, komentatu bion artean, horietako zenbat betetzen dituzuen egunerokoan eta zenbat ez.

Argitu haurrari osasuntsu bizitzeko beharrezkoa dela Tiritatxok eskaintzen dizkigun aholku hauek oso presente izatea gure egunerokoan.



37. Ez dago Ez ardi, Ez
txakur, Ez haurrik, ahots
propioa Ez duenik!

5. ELEFANTE BAT HEGAN

Istorio polita da zuk zeuk haurrari irakurtzeko. Beraz, honako honetan, agintea zeuk hartzea proposatzen dizugu. Esan haurrari, animalien inguruko istorio bitxi bat irakurriko diozula, eta esan bera leku lasai batean jartzeko eta bakar-bakarrik entzuteko. Esaiozu kontua dela irakurketa entzunaldiaz gozatzea. Ea ba lortzen duzun!

6. EUSKARAREN ETXEA ETA LAGUNTZO BERRIA

Atal honetan, galdetu haurrari komikia nola irakurri nahi duen. Behin adosturik, irakurri komikia eta bota galdera hauek haurrari:

- Nora joan dira gure lagunak?
- Nafarroa non dagoen badakizu? (Hala ez bada, piztu ordenagailua, eta erakutsi, Euskal Herriaren zein partetan dagoen. Hiriburua zein den... Erakutsi nahi diozun guztia... Eta Igantzi herria aurkitu).
- Zeinekin aurkitu dira Igantzin?
- Zer gertatu zaio Mari Mototsi? Ulertu duzu zerbait? Zergatik gertatzen da hori?
- Zein euskalkitan hitz egiten duzu zuk?

Behin Igantzi aurkiturik, asteburuan, bertara joan, eta herriari bisitatxoa egitea gomendatzen dizuegu! Prestatu patata tortillaren bat eta joan egun pasa bertara! Nafarroak, leku eder eta bitxi asko gordetzen ditu!

7. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Txoko txiki kuttuna, irudi bitxiz beteta ageri zaigu oraingoan! Galdetu haurrari:

-Zer direla uste duzu? Zein emozio adierazten dizkigute?

Esan haurrari zutabe bakoitza txandaka irakurriko duzuela eta behin bakoitzak bere zutabea irakurrita irakurritakoa besteari azaldu beharko diola. Komentatu ea gustuko izan duzuen, zergatik...



37. Ez dago Ez ardi, Ez
txakur, Ez haurrik, ahots
propioa Ez duenik!

8. LAGUN

Lagunen komikian zera proposatzen dizugu:

Esan haurrari komikiko esaldi baten azaleko esaldi bera ageri dela. Animatu haurra esaldi hori aurkitzen!

Aurkitu eta gero, batek irakur dezala Lagunek dioena, eta besteak Urdinek dioena.

Behin amaiturik, galdetu haurrari:

- Nora eta zertara joan dira 'Lagun' eta 'Urdin'?
- Nor dago asperturik? Zergatik?
- Ardiak, ezberdinak ala berdinak dira? Zertan ezberdintzen dira?

9. OLAGARROA

Olagarroa oso txikitatik ezagutzen dugun animalia horietakoa da. Oraingo honetan, Irrien Lagunek olagarroa gehiago ezagutzeko aukera ematen digute. Gure nahia, beraz, haurrek olagarroaren ezaugarriak ezagutzea izango da, ahalik eta modu dibertigarrienean:

- Orritxo zuri batzuk beharko ditugu. Orri horietan olagarroaren ezaugarriak idatziko ditugu, eta horiekin batera, olagarroa ez den beste animalia baten informazioa ere txertatuko dugu (txerria, balea, izurdea, txipiroia...).
- Etxeko edo aurkitzen zareten lekuko toki bat hautatuko duzue. Bertan animalien izenak idatziko dituzue, betiere orritxoetan jarri dituzuen animaliak azalduko direla aintzat izanik.
- Ondoren haurrari hauxe azalduko diozu: “Begira, eguneko edozein momentutan pista bat aurkitzeko eskatuko dizut —orri zurietan idatzitakoak ezkutatu beharko dituzu—, eta zuk pista aurkitzean, animalia hauetako batekin lotu beharko duzu, ados? Pista guztiak aurkitzean, aukera izango duzu pista guztiak irakurri eta ondo dauden ziurtatzeko; ondoren, hilabete honetako aldizkariko animalia zein den galdetuko dizut. EA ASMATZEN DUZUN ZEIN DEN!!!”



37. Ez dago Ez ardi, Ez
txakur, Ez haurrik, ahots
propioa Ez duenik!

10. FILOSOFO TXIKIAK

Oraingo honetan ere, Filosofo txikiak galdera mordo batekin dabilta gora eta behera! Berdinak ala desberdinak garen jartzen dute zalantzan. Gu ere galdera horiek erantzuteko prest gauden ikusiko dugu!

- Lehenik eta behin, komikiaren hasieran Mixinak Xerriri egiten dion galdera erantzuten saiatuko zarete. “Zer gara berdinak ala desberdinak?”. Galdera erantzuteko momentuan zuri gelditu baldin bagara, galdera batzuk egingo dizkiogu geure buruari:
 - Zertan gara berdinak eta zertan ezberdinak?
 - Eta, berdinak bagara, zergatik dugu itxura ezberdina?
 - ...
- Hori amaitzean, komikia irakurriko duzue, nahi duzuen bezala: bakarrik, guztiok batera, ahoz goran...
- Eta irakurri ondoren, Mokofinek komikian egin dituen galderak erantzuteko gai garen ikusiko dugu:
 - Orduan, zer gara, berdinak ala desberdinak?
 - Berdinak eta desberdinak gara aldi berean?
 - Desberdinak izatea bata bestea baino hobea izatea da?

11. MARTIN BERTSO

Udazkena iritsi da, eta horrekin batera gure zuhaitzak biluzik gelditzen ari dira. Irakurri ezazue lasai-lasai komikia, eta amaitzean, egin galdera hau haurrari: Zer iruditzen zaizu komikia? Ikusi duzu zer esan duen Martin Bertsok: “Halaxe gintuen egin: desberdintasunak berdina?”. Ikusiko ahal dugu gure herrialdean dauden zuhaitzak nola dauden?

Kanpora irteten zaretenean eta zuhaitzak ikusten ari zaretenean bitartean, egin iezaiozu galdera hau haurrari: Eta, zure ustez, zuhaitzak zer dira, berdinak ala desberdinak?



37. Ez dago Ez ardi, Ez
txakur, Ez haurrik, ahots
propioa Ez duenik!

12. MARIKALANBRE

Arrautzekin esperimentatzeko prest? Irakurtzea bezain dibertigarria izan ohi da irakurritako gauzak esperimentatzea, ezta? Haurra irakurketara animatzeko aukera bikaina da esperimentuena. Beraz, noizean behin, jarri praktikan irakurri duzuen hori, interesgarria izan daiteke eta. Oraingo honetan, hauxe proposatzen dugu:

- Erakarri haurra irakurketara, galdera batzuk eginez: Badakizu zer egin behar duten Marikalanbre eta bere lagunek? Badakizu arrautzekin esperimenturik egiten? Nahi duzu esperimentu berri bat ezagutu? Irakurriko dugu zer dioten?
- Nola ez, irakurketa amaitzean, esperimentua egitea dagokigu. Baina esperimentua ez dugu egingo egunean bertan. Gure proposamena astebete igaro ondoren gauzatzea izango da.
- Astebete pasa denean, egositako arrautzak eta egosi gabeak hozkailuan jarriko ditugu Amona Txinpartak jarri zituen moduan. Ondoren, haurrari galdera egingo diogu: Ekarriko didazu arrautza egosi bat?, ea gogoratzen den zer egin behar den, arrautza egosita dagoen ala ez egiaztatzeko!

13. LARGABISTA

Largabistaren komikian, mozorrotzeko proposamena egin nahi dizuegu. Hiru pertsonaia agertzen dira, Largabista, Marimototx eta Porrotx. Aukeratu bakoitzak bere pertsonaia, eta mozorrotu komikian ageri diren bezala. Ondoren, antzeztu ezazue komikia! ANIMATU BENETAN, OSO DIBERTIGARRIA IZAN OHI DA HAURRENTZAT GURASO, ZAINTZAILE ETA HEZITZAILE BERAIEKIN BATERA ZORAKERIAK EGITEN JARDUTEA!!



37. Ez dago Ez ardi, Ez
txakur, Ez haurrik, ahots
propioa Ez duenik!

14. ZENBATAK

Zenbatak, Filosofo txikiak bezala, berdinak edo ezberdinak diren ondorioztatzen ari dira. Jada, gai izango zarete zertan garen berdinak eta zertan ezberdinak identifikatzen ezta? Irakurri komikia, eta jarraian, bertan Zenbatek egiten duten moduan gauzatuko dugu jarduera hau. Ariketa honek elkar ezagutzeko balioko digu, eta aldi berean irakurketarekin harremana estutzeko:

- Bata bestearengandik zer daukagun berdina eta zer ezberdina idatziko dugu orritxo batean.
- Amaitzean, idatzitakoa konpartitzen hasiko zarete.

15. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Irakurtzen hasi aurretik, bi minutu hartuko ditugu komikia gaineratik ikusteko. Zergatik bi minutu? Izan ere, irakurtzen hasi aurretik garrantzitsua da geure burua kokatzea irakurri behar dugun horretan. Bi minutu horiek igaro ondoren, txandaka irakurriko dugu. Eta amaitzean, komikia zer iruditu zaigun galdetuko diogu elkarri; momentu horretan, galdera batzuk egin ditzakegu:

- Zer da gehien gustatu zaizuna? Eta gutxien?
- Zer aldatu edo kenduko zenuke komikitik?
- Garbi adierazten da zer gertatzen den?
- ...

16. BIZIPOZAREN JAIA ARRASATEN

Jolas dezagun apur bat gehiago! Orrialdea aurrean duzuelarik eta irakurri aurretik, hara zer proposatzen dizuegun:

- Denbora baten barruan hainbat gauza aurkitu behako dituzue, adibidez:
 - Hamar segundoan: kamiseta gorriarekin dauden hiru pertsona.
 - Hamabost segundoan: sudur gorriarekin dauden bi pertsona.
 - Minutu batean: z hizkiz hasten diren hitzak.
- Eta horrela, nahi adina!!